

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barkos Lehendakariak Gobernu berriko egituraren dekretua sinatu eta bertako kideak izendatu ditu

Kontseilariak ostegun honetan beren karguez jabetuko dira Foru Gobernuaren egoitzan 12:00etan egingo den ekitaldian

Miércoles, 22 de julio de 2015

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek Foru Administrazioaren departamentuen egitura finkatzeko duen foru-dekretua sinatu du asteazken honetan. Bederatzi departamentutan antolatuta geratu da Administrazioa eta arlo bakoitzaren buru izango diren kontseilariak izendatu ditu; kontseilari horiek ostegun honetan, uztailak 23, beren departamentuen kargu egingo dira, Nafarroako Jauregiko Tronuaren Aretoan, 12:00etan, egingo den ekitaldian.



Barkos Lehendakariak foru-dekretuak sinatu ditu.

Lehendakaria Nafarroako Parlamentuan [bere karguaz jabetu](#) ondoren eta handik minutu gutxira sinatu du foru-dekretua. Barkosek hamahiru dekretu izenpetu ditu (bat Administrazioaren departamentuen egitura finkatzeko, bederatzi kontseilariak izendatzeko eta hiru bi lehendakariordeak eta eleduna izendatzeko), eta ostegun honetan indarrean sartuko dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) argitaratu ondoren.

Foru Administrazioa bederatzi departamentutan egituratu da, eta gizonaekoak diren bost kontseilari eta emakumezkoak diren beste lau kontseilari izango dituzte buru: [Manu Ayerdi](#), Gobernuaren lehen lehendakariordea izango dena ere, Garapen Ekonomikorako Departamentuaren buru izango da, eta [Miguel Laparra](#), bigarren lehendakariorde izango dena ere, Eskubide Sozialetako Departamentuko buru.

[Mikel Aranburu](#) Ogasun eta Finantza Politikako kontseilaria izango da; [María José Beaumont](#), Lehendakariorde, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria; [Ana Olló](#), Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria eta Gobernuaren eleduna; [José Luis Mendoza](#), Hezkuntzako; [Fernando Domínguez](#), Osasuneko; [Ana Herrera](#), Kultura, Kirol eta Gazterikoa; eta [Isabel Elizalde](#), Landa Garapeneko, Toki

Administrazioko eta Ingurumeneko kontseilaria.

Departamentu bakoitzaren eskumen-arloa

Garapen Ekonomikorako Departamentuari dagokio Foru Komunitateko Administrazioari emandako eskumenak egikaritzea honako hauei lotutako gaitan: ekonomia-jardueraren plangintza eta programazioa; industria, energia eta meatzaritza; industria-jarduera sustatzea; ikerketa sustatzea, garapen teknologikoa eta berrikuntza, kalitatea eta lehiakortasuna; kontrol energetikoa eta meatze-kontrola; energia berriztagarriak bultzatzea; Nafarroako enpresen nazioartekotzea sustatzea; lan-harremanak eta ekonomia soziala sustatzea eta antolatzea; lan-bitartekotza; Nafarroako turismo-sektorea antolatu eta sustatzea; barne-merkataritza eta eskulangintza antolatu eta sustatzea; Nafarroako Errepide Sarea proiektatu, egikaritu, kontserbatu, ustiatu eta babestea; interes orokorreko obra hidraulikoak, trenbide eta aireportuko obrak kudeatzea edo agintzen zaizkion beste antzeko obra batzuk kudeatzea; geologia eta geoteknia; kartografia; garraio-arloaren plangintza, koordinazioa eta politika egikaritzea.

Eskubide Sozialetako Departamentuari dagozkio honako gai hauek: gai sozialak, familia, kontsumoa, haurtzaro eta nerabezaroari emandako arreta; pertsonen autonomia sustatzea; adineko eta desgaituen beharrei erantzutea; gizarteratzea; immigrazio-politikak koordinatzea; garapenerako nazioarteko lankidetzak; enplegu, informazio, orientazio, bide-laguntza eta laneratzeko politika aktiboak sustatzea; lan-merkatuko bitartekotza; etxebizitza eskuratzeko aukera sustatzea eta bizitoki-lurzoruko merkatuan esku-hartzea.

Ogasun eta Finantza Politikako Departamentuaren eskumenak dira: ogasun publikoa; aurrekontua planifikatu nahiz egitea eta kontrol ekonomiko-finantzarioa; finantza-politika eta Estatuarekin nahiz gainerako administrazio publikoekin koordinazio ekonomikoa izatea; ondarea; estatistika; Europako gaiak eta hango politika jarraitzea.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak honako eskumen hauek izango ditu: Gobernuaren Idazkaritza; erregistro orokorra; administrazioa sinplifikatzea eta administrazio elektronikoa garatzea; informazio-gizartea garatzea eta informazio nahiz komunikazioen teknologiak erabiltzea; Nafarroako Aldizkari Ofiziala; gobernu irekia, kode etikoa, jardunbide egokien eta ustelkeriaren aurkako bulegoa; Foru Komunitatearen aholkularitza juridikoa eta haren ordezkariak eta defentsa epaiketari; Nafarroako Zuzenbidea sustatzea, hauteskunde-prozesuak; funtzio publikoa; segurtasun-politikak; polizia; joko eta ikuskizunak; babes zibila eta larrialdien arreta; Justiziako Administrazioa; delitu-biktimei laguntza ematea, delinkuenteak errehabilitatzea eta gizarteratzea.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuari dagozkio honako hauei lotutako gaiak egikaritzea: hizkuntza politika; gizon eta emakumeen arteko berdintasun-politikak; bake, bizikidetzak eta giza eskubideen gaineko politikak; azterketa estrategikoak; herritarren partaidetzako politikak; Gobernuaren eledunaren funtzioak; Lehendakariari laguntzea; Parlamentu, beste foru-erakunde batzuk, erakunde autonomo, Estatuko erakunde eta Europako erakundeekiko harremanak; Europar Batasuneko erakundeetan parte hartzea; informazio-politika koordinatzea; herritarren arreta; gizarte-komunikazioko baliabideak; Nafarroako Gobernuaren presentzia Interneten eta sare sozialetan; eta Foru Komunitatetik kanpo, eskualdeko etxe eta egoitzetan bizi diren nafarrekin harremanak izatea.

Hezkuntzako Departamentua unibertsitatekoa eta unibertsitatekoa ez den irakaskuntzari lotutako gaien arduradun izango da.


Osasuneko Departamentuak honako hauei buruzko eskumenak ditu: osasun publikoa, lan osasuna, osasun-laguntza eta osasunaren babesari lotutako eskubideak bermatzea.

Kultura, Kirol eta Gazteriako Departamentuak honako hauei buruzko eskumenak izango ditu: kultur ondarea babestu eta handitzea; herritarren kulturarako sarbidea demokratizatzea; kirola eta gazteria.

Azkenik, Landa Garapenerako, Toki Administrazioa eta Ingurumeneko Departamentuak ondorengo gaiei buruzko eskumenak izango ditu: nekazaritza, abeltzaintza, elikadura eta landa-garapena; Nafarroako toki-administrazioa; ingurumena babestu eta kontserbatzea; baliabide hidrikoak; lurraldearen antolaketa eta

hirigintza; eta eraikuntza-kalitatea kontrolatu eta sustatzea.

Galería de fotos



Uxue Barkos Berruezo, Nafarroako Lehendakaria.



Manu Ayerdi Olaizola, Garapen Ekonomikorako lehendakariordea.



Miguel Laparra Navarro, Eskubide Sozialetako lehendakariordea.



Mikel Aranburu Urtasun, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria.



María José Beaumont Aristu, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria.



Ana Olló Hualde, Gobernuko eleduna eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria.



José Luis Mendoza Peña,
Hezkuntzako kontseilaria.



Fernando Domínguez Cunchillos,
Osasuneko kontseilaria.



Ana Herrera Isasi, Kultura, Kirol eta
Gazteriako kontseilaria.



Isabel Elizalde Arretxea, Landa
Garapeneko, Toki Administrazio
eta Ingurumeneko kontseilaria.